

CATECISMO MANUSCRITO EN EUSKARA ALTO NAVARRO

Este cuaderno manuscrito que publicamos es hoy propiedad del Archivo de la Diputación de Guipúzcoa. El original lleva forro de pergamino y tiene en la hoja posterior una solapa de 52 mm. Mide 21 x 16 centímetros. Es un cuaderno cosido de papel amarillo muy usado, de 19 hojas bien conservadas. No lleva ninguna paginación. De muy hermosa letra, con mayúsculas muy artísticas. No hay fecha ni indicación ninguna, pero podría ser muy bien de finales del siglo XVIII. La hoja cuarta tiene en la base un corte de unos 4 1/2 cms. que no roba ninguna línea del texto vasco: en su reverso está en latín, escrito con letra posterior, la Salve Regina y el Ora pro nobis. La última hoja tiene en la base un roto a mano de unos 7 cms. que roba algunas líneas, las dos o tres últimas. No tiene escrito de propietario, ni otro título ninguno. En la última página hay un escrito de dos líneas, de letra contemporánea del manuscrito pero distinta, que dice: "Dice Sn Agustín: Ne dum nimium servatur humilitas, retendi frangatur autoritas" En el lomo y canto del pergamino hay la señal de pliegue anterior, de unos 12 mm., correspondiente a cuaderno más grueso, como si faltaran más del doble de 19 hojas. No es fácil identificar el dialecto. Algunas frases delatan el vascuence circumpamplonés, pero no es navarro meridional típico, a pesar de encontrarse *egun* por *gaur*, *sandua* por *saindua*, *siñestatcen* por *siñesten*, *yayo* por *sortu*; *ortci*, *alaber*, *mandamentu*, *mantenimentu*, *guenuen*, etc. En cambio *oraiñ*, *lentabacicico*, *lujuriazgo*, etc., despistan completamente.

En otro artículo procuraremos hacer un estudio comparativo de algunas líneas con las similares del Beriain, del Elizalde, navarro de Añibarro

(inédito e impreso), y con unos restos de páginas impresas de una antigua doctrina navarro-meridional (vascuence y romance) que pudieran pertenecer a la tan rebuscada de Sancho de Elso.

Este original manuscrito es muy interesante por la mezcla no acostumbrada de formas del navarro meridional con el septentrional y es bastante correcto para lo que se estilaba entonces. Nada podemos decir de su origen, sino que perteneció al Padre Muniozguren, del Convento de Carmelitas de Pamplona, de cuyos papeles lo salvó el P. L. de perdida segura, y lo encaminó a la Biblioteca de la Diputación de Guipúzcoa, donde se encuentra actualmente.

Esta es copia literal y exacta, sin omitir las erratas ni los acentos ortográficos que el autor, no se sabe si arbitrariamente, pues los de las íes no son siempre efectivos, prodiga en el Manuscrito.

Aita gurea zeruetan zaudena santifica [sic] bedi zure icena betor
gu gana zure erreñua, eguin bedi zure borondatea zeruan bezala lurrean
ere. Egun eguzu guri gueren egunoroco ogua, eta barca dietzaguzu guri
gueren zorrac, gu zorgaitutzenei barcacen ditiegun [sic] bezala, ezcaitzat-
zula utzi tentacioan erorcera, baitzic [sic] libra gaitzazu gaicetaric Amen
Jesus.

Ave Maria, graciaz betia Jauna da zurequin, bedeicanta [sic] zu zara
andre gucien artean, eta fructu bedeicatua dá zure sablecoa Jesus:

Santa Maria Jancicoaren [sic] ama, zuc otoiz eguizu gu becatorien
[sic] gatic, óraiñ eta gure erioceco orduan Amen Jesus.

Gloria patri et filio et spiritui sancto sicuterad in principio et nuc
et semper et in secula seculorum Amen Jessus.

CREDOA

Credo nic señestatcen dut Jangoico Aita podore gucia duenaren bai-
tan, zeruaren eta lurraren criazalearen baitan, eta Jessu-Christo seme
bacar gure Jaunaren baitan: concebitu baitcen Espiritu sanduaren obraz
eta birtutez, yayocen virgina Mariaren ganic, pasatu zuen eriotce pasio
dolorosoa poncio pilato manuaren azpian, guruceficatu zuten iltzuten,
ortcizuten, yautsicen limboetara, andic irugarren egunean erresucitatu zela
illen artetic bicietara, igantzela zeruetara an dagola yarriric Aita eter-
nuaren escuñeco aldean: andic etorrico dela azquen Juicioco egunean, illen
eta bicien Juzgatzera, nic alaber siñestatzen dut espíritu sanduaren baitan
eliz-ama santa catholicoan, sandu en comunionean, becatuen barcacioan,
araguiaren erresurreccioan, [sic] eta bicitze seculacoan. Amen Jessus.

SALBEA

Salbe regina Jangoicoac salba zaitzala erreguiña misericordiaren ama, bitziza [sic] eta dultzura esperantz gurea salbe, zugana deyez gaude Hebaren ume desterratuoc aiez, oiez nigarrez suspiroz valle negarrezco oneitan è, á bada señora gure Abogada itzuli dietzaguzu zure begui misericordiazco-orieq gugana, eta destierro onen ondotic eracutsi eguiguzu Jessus zure sabeleco fructu bedeicatua: ¡Ó clementissima! ò piadosa ò dulce virgina Maria zuc otoitz eguizu guregatic, Jangoicoaren Ama Santa, mereci dezagun alcanzatzea Jessu christoren promesac. Amen Jessus.

ARTICULUAC

Articulo fedezcoac dire amalau, lentabicico zazpiac Dibinidate sanduarenac, eta berce zazpiac Humanidate sanduarenac: Dibinidatearenac dire oc:

lentabicicoa sinestatcea Jangoicoa dela gutciz poderosoa; bigarrena siñestatzea aita dela Jangoico: irugarrena siñestatcea semea dela Jangoico: laugarrena sinestatzea Espíritu sandua dela Jangoico: bortzgarrenra siñestatzea Jangoicoa dela creatzalea seigarrenra siñestatzea Jangoicoa [?] salbatzalea: zazpigarrena siñestatzea Jangoicoa dela Glorificatzalea.

Berce zazpiac Jessuchristo gure Jaunaren Humanidate sanduarenac dire oc: Lentabicicoa siñestatzea Trintateco bigarren Persona zeiñ baita semea contzebitu zela María Santíssimaren sabelean Guizon zen batez [?] espíritu sanduaren obraz eta birtutez: Bigarrena sinestatzea yayozela virgina Mariaren ganic guelditzen zelaric au, erdi bañio len, erditzean eta erdi ez gueroz beti Virgen: Irugarrena siñestatzea pasatu zuela eriotze pasione dolorosa gu becatoren salbatcea gatic:

Laugarrena siñestatzea yautsicela Limboetara han [sic] zeuden aria ma sanduen ateratzena eta consolatzera: Bortzgarrenra siñestatza andic irugarren egunean erresucitatu zela illen artetic bicietara:

Seigarrena siñestatza igantzela zeruetara andagola yarriric aita eternoaren escuñeco aldean:

Zazpigarrena siñestatza andic etorrizo dela azquen Juicioco egunean, onen eta gaistoen Juzgatzera:

Onei emanen diela seculaco Gloria zergatic aren mandamentu sanduac guardatu bai zituzten: eta alaber, gaistoei seculaco Infernuco pena, zergatic aren Mandamentu sanduac ezpaicituzten ez guardatu eta ez beguiratu. Amen Jessus.

OBRA MISERICORDIAZCOAC

Obra Misericordiazcoac dire amalau, lentabicico zazpiac Espirituallac, eta berze zazpiac Corporalac; Espiritualac dire oc: Lentabicicoa eztaquienari eracustea: Bigarrena bearrean dagonari conseju onbat embatea: Irugarrena uts eguiten duenari Jangoicoaren ganaco bidea eracustea: Laugarrena injuriac barcacea: Bortzgarrena tristeac consolacea: Seigarrena gueren lagun progimoaren faltac, eta flaquezac pacientiarequin sufricea: Zazpigarrena illen gatic, eta, bicien gatic Jangoycoari otoiz eguitea:

Berce zazpiac Corporalac dire oc: Lentabicicoa eriac visitatzea: Bigarrena, goseac dagonari yatera ematea: Irugarrena egarriac dagonari edatera ematea: Laugarrena cautibuen errescatacea: Bortzgarrena billusien bezitztea: Seigarrena ateco pobre, edo berce bearrean daudenei ostatua ematea: Zazpigarrena illen enterratzea: Amen Jesus.

AMAR MANDAMENTUAC

Jangoicoaren leguezco Mandamentuac dirè amar; lentabicico irurac Jangoicoaren honrracoac, eta bertze zazpiac lagun progimoaren provechucoac; Lentabicicoa onetsi eta maita dezagula gure Jangoicoa bioz gucticic berce gauza guziac baño geiago: Bigarrena Juramenturic banoan eguiñ eztezagula: Irugarrena yayac eta Igandeac guarda detzagula: Laugarrena guratsoac eta zarragocoac ongui onrrà eta errespetadetzagula: Bortzgarrrena nior ill eztdezagula: Seigarrena lujuriazgo becaturic eguiñ eztdezagula: Zazpigarrena niori deus ebasi eztiozogula: Zorcigarrena niori falso testimonioric alcha, edo, gora ez diezogula; eta guezurric erran ez dezagula: Bederecigarrena lagunaren senar edo Mazteric guerendako descia eztdezagula: Amargarrena lagun proximoaren aciendaren bide gabean gaizqui trata eztdezagula: amar mandamentu oc enzerratzen dire bietara: lentabicicoa onetsi eta maitadezagula gure Jangoicoa bioz gucticic gauza guziac baño gueiago: Bigarrena gueren lagun proximoac gueren buruac beza. Amen Jesus.

BORZ MANDAMENTUAC

Elizaco Mandamentu Sanduac dirè bortz: Lentabicicoa Yayettan eta Igandettan Meza osoa entzutea: Bigarrena urtean beiñ bederen confescea: Irugarrena Bazco Garizimacoetan confesa comecatzea: Laugarren Elizama Sanduac aguintzen dituen baru egunac atteratzea; Bortzgarrren Amarren, Primiciac oso eguitea Amen Jesus.

ZAZPI SACRAMENTUAC

Elizaco Sacramendu Sanduac dirè Zazpi: Lentabiczko Bataiacea; Bigarrena confirmacea; Irugarrena confetsacea; Laugarrena comecatzea; Bortzgarrena oliadura; Seigarrena ordena eta Zazpigarrena Matrimonio sanguina: Amen Jesus.

Ni becatorea confetsatzen nazaio Jangoyco omni potenteari, Andreana Maria beti Birjinari San Miguel Aingueruarí, san Juan Baupertistarí, S. Pedrorí eta S. Pablórí berce Parabisuan diren sandu eta santa guciey; equen lecuan Zurí nere Aita Espiritual orri eguiñ dudala becatu aniz, itzez, obraz, eta pensamenduz, Jauna nereada culpa Jauna nereada culpa; Jauna nereada culpa andia, nitaz zuc iducazu piedadea eta Misericordia: Amen Jessus.

Jessu Christo nere Jauna Jangoyco eta guizon eguiatzcoa; nere criadoreta etta Redentorea, zeren zaren gutziz ona, eta zeren maitatzen Zaitudan bñotz gutzitic gauza guciac baño gueiago, damudut Jauna, damudut Zu ofenditua, arcen dut propositu firme bat, ez berriz becaturic eguiteco, confesatzeco, eta confesoreac ematten dídan Penittencia cumpliceco, aincaña berriz becaturic ez eguiteco. [Aquí siguen dos oraciones en latín de distinta letra muy posterior, y de estilo inferior]:

Salve Regina; Mater Misericordie vita dulcedo & spes nostra Salve. Ad te clamamus Filii Heve. Ad te suspiramus gementes & flentes in hac lacrimarum valle, Eia ergo advocata nostra illos tuos misericordes oculos ad nos converte. Et Jesum benedictum fructum ventris tui nobis post hoc exilium ostende. O clemens o pia o dulcis Virgo Maria.

Ora pro nobis Etc. &

Omnipotens sempiterne Deus qui gloriose Virginis Matris Marie Corpus et & animam ut dignum fillii tui habitaculum efieri... Spiritu Santo Cooperante preparasti da ut cuius commemoratione letar eius pia intercesione ab instantibus malis & a morte perpetua liberemur per eundem Chris... Dominum...

[Sigue la letra original.]

Pregta. Christaba zara?

- R. Bai, Jangoicoaren, graciarequin.
- P. Christavaren izen ori norei ganic duzu?
- R. Jessu Christo gure Jaunaren ganic.
- P. Zer erranaídu Christabac?
- R. Jessu Christoren guizona.

- P. Zer entendicen duzu Jessu Christoren guizonaz?
- R. Christoren guizona edo Persona dagola aren serbizu sandura bizarera obligatua [sic].
- P. Christabaren señalea zeinda?
- R. Gurutze sandua.
- P. Zergatic?
- R. Zergatic baíta Christo guruzeficatuaren figura edo señalea, zeren artan, redimitu edo salbatu baiguintuen.
- P. Zembat aldetarà da gurutza?
- R. Bi aldetarà.
- P. Zeiñ dirè?
- R. Zinatztea eta Santiguatza.
- P. Zer dà ziñatza?
- R. Escuñeco escuko beaz andiaz iru gurutze eguitea, lentabicicoa copetan, bigarrena agoan, Irugarrena bularretan mintzacen garelaric Jangoico Jaunarequín.
- P. Zergatic Ziñatzen zará copetan?
- R. Jangoicoac libra gaízan pensamendu gaisto guciataric.
- P. Zergatic agoan?
- R. Jangoicoac libra gaitzan iz gaisto guciataric.
- P. Zergatic Bularretan?
- R. Jangoicoac libra gaitzan obra eta deseo gaisto gutziettaric.
- P. Zer da santiguatza?
- R. Escuñeco escuko bi beatzez guruce bat eguitea asi copetatic, bularretara, bularretaric, ezquerreco soñ gañera, ezquerrecotic, escuñecora, minzazen garelaric Trinta [sic]... Jaun Poderosoarequin.
- P. Noiz usatu beardugu obra on ortaz?
- R. Noiz ere naí aurquicen garenean, edoceiñ premia, necesidade, tentacione, edo peligruetan, eta especialqui, guatzetic yeiquitzean, Icheitic ateracean, elizan sarcean, Jatean, edatean, edo berce gañeraco asten garen obran on guciettan.
- P. Zergatic orremberce aldíz?
- R. Zergatic, dembora, eta lequ guciettan gueren etsaien... tentacen eta perseguicen bai gaituze.
- P. Zer etsaí díre oríec?
- R. Mundua, Demonia, eta Araguaia.
- P. Nola garaituco dugu mundua?
- R. Menospreciatzen dítugularic Munduco pompac, eta banidadeac.
- P. Nola garaituco Demonia?
- R. Horazioz eta humildadez?

- P. Nola garaituco dugu araguia?
- R. Mortificazioz, Zilizioz, eta baru egunez [sic].
- P. Iru etsai oríettan zeiñ da gaistoena?
- R. Araguia.
- P. Zergatic?
- R. Zergatic Araguia gueren ganic eciñ aparta bay dezaquegu, bañon, Mundua eta Demonioa bay.
- P. Christaba adimentura allegatzen denean zembat gauza dago obli-gaturic yaquitera?
- R. Lau gauza.
- P. Zeiñ dirè?
- R. Lentabiczcoa yaquitea zer bearduen siñetsi.
- Bigarrena yaquitea zer bearduen otoitz eguiñ edo escatu.
- Irugarrena yaquitea zer bearduen obratu.
- Laugarrena yaquitea zer bearduen errezibitu.
- P. Nola yaquiñendu zer bearduen siñetsi?
- R. Daquizquielaric Credo, edo, Articulo Fedezcoac.
- P. Etta baldimbaquiai Credo, eta Articuluac ez asquico dù?
- R. Bai, jauna.
- P. Etta baldimbaquiaquizqui Articuluac, eta Credo ez asquico dù?
- R. Ez, Jauna.
- P. Bada zer berceric yaquin beardu?
- R. Credoaren ondarreco izac.
- P. Zeiñ díre oriec?
- R. Nic alaber siñestacendut Espiritu sanduaren baitan, Elizama santa catholicoan, sanduen comunionean, becatuen barcacioan, araguiaren resurreccionean eta bicice suculacoan [sic] Amen.
- P. Nola yaquinendu zer bearduen escatu, edo otoiz eguin?
- R. Daquizquielaric Patternoster Abemaria, eta berce gañeraco Eli-zaco oracioac? [sic].
- P. Nola yaquinendu zer bearduen Errecibitu?
- R. Daquizquielaric Elizaco Zazpi Sacramtu Sanduac.
- P. Norc errantzuen Credo?
- R. Apostolu sanduec.
- P. Zertaco?
- R. Guri fede Sandua eracusteco.
- P. Guc zertaco erraten dugù?
- R. Dugun fede sandua aitortzeco eta confesaceco.
- P. Zerda fedea?

- R. Dà gauzabat Icusi gabe siñestea zergatic Jangoicoac errebelatu baitù.
- P. Icusi zenuen Jesu Christo gure Jauna yayocen, ilcen, resucitzen, edo, Zeruetara ígaten?
- R. Ez, Jauna.
- P. Siñestatzen duzu?
- R. Bai, Jauna.
- P. Zergatic?
- R. Zergatic Jangoycoac Elizama santarí alà errebelatu baitzion, eta Elizama santac gurí ala eracusten baitigu.
- P. Zer dirè Jangoicoac Elizari errebelatu cition gauzac?
- R. Articulo fedezcoac príncipalquí credoan enzerratzen diren bezala.
- P. Zer dirè Articulo fedezcoac?
- R. Dirè misteriotan diren principalenac:
- P. Zertaco Dirè Articulo fedezcoac?
- R. Emateko guri noticia distintua gure Jangoycoaz, eta Jessu Christo gure Redentoreaz.
- P. Norda gure Jangoicoa?
- R. Da Jaun bat añ Excelentea, añ admirablea ecin erran ecin pensa daitequen bat, Jaun bat infinitemente ona, poderosa, sabioa, Justua, principioric, eta fiñic ez duena.
- P. Trintate Jaun Poderosa norta?
- R. Da Jangoicoa bera bacarric, Aita, Semea, eta Espiritu Sandua.
- P. Iru persona orietaric zeiñ ilzen?
- R. Semea Jauna? [sic].
- P. Non hilcen?
- R. Gurutzean Jauna.
- P. Norengatic ilcen?
- R. Gu, eta mundu gutzia salbatzeagatic.
- P. Hill ta nora yuантzen?
- R. Gorputza Sepulturarà eta arima Limbora Divinidadarequin unituric.
- P. Zertara yuancen?
- R. Anceuden arima sanduac ateratzera eta consolatzera.
- P. Noiz erresucitatucen?
- R. Hillta Irugarren egunean.
- P. Noiz igantzen Zeruetara?
- R. Resucitatu eta Berroguei garren egunean.
- P. Zer enttendicen duzu erratean, andagola yarriric aita eternoaren escuñeco aldean.

R. Jessu Christoc duela Jangoicotasunean gloria berdin, Aita eternoarequin, eta Espiritu Santuarequin; Guizontasunean Zeruan diren sandu eta, santa gutziec baño gloria gueiago duela.

P. Nola dà Jangoicoa gutziz poderosoa?

R. Zergatic bere podorez eguiten baitu naiduen gutzia.

P. Nola dà Jangoicoa criatzalea?

R. Zergatic criatu bai zituen gauza gutziac deus ez ettaric.

P. Nola da Jangoicoa salbatzalea?

R. Zergatic ematen baitu bere gracia eta barcacen baititu becatuac.

P. Nola dà Jangoicoa Glorificatzalea?

R. Zergatic ematten baitu gloria aren gracian ilzen eta perseberatzen denari.

P. Badu Jangoicoac guc bezala gorputzic?

R. Jangoicotasunean ez, zergatic baita Espiritu purua, bañon guizontasunean bay.

P. Zer erran naidu Sanduen Comunioneac?

R. Christau bat [sic] baldimbadago Jangoicoaren gracian izanen duela partte eta participantte bertze gutziec eguiten dituzten obra on gutzietan gorpuz bateco miembroac bezala, Zeñi baíta Eliza.

P. Zer da Eliza?

R. Christau fiel gutzien Junta eta congregacioa da Eliza, Elizaren burua dà Christo, Christoren lecuan Aita sandu Errromacoa lurrean nori gutzioc baicaude obligaturic obedecicerà.

P. Zer erran nai du becatuen barcacioac?

R. Elizan dírela pottestadeac becatac [sic] barcatzeco, pottestadea dauquatela Elizako Sacramtu. Sanduac eta especialqui sacramentu confesiocoac.

P. Zer erran nai dù araguiaren resurreccioneac?

R. Orain ditugun arimequin eta Gorputzeqn. erresucitatu bear dugula azquen Juicioco egunean Josafataco Zelaian.

P. Zer erran nai dù bitzice [sic] Seculacoac?

R. Azquen Juicioco egunetik goiti artu bear dugula bitzitza [sic] berri bat seculan acabatuco eztena.

P. Zer bitzitza... izanen dà orì?

R. Onei emanen zaiela seculaco gloria, eta gaistoei seculaco Infernuco penac.

P. Zeñec izanen dire onac?

R. Jangoicoaren gracian ilzen direnac.

P. Zeñec izanen dirè gaistoeac?

R. Becatu mortalean ilzen direnac.

- P. Norc erran zuen Patternostter?
- R. Jessu Christoc Jauna.
- P. Zertaco?
- R. Guri otoiz eguiten eracusteco.
- P. Zer da otoiz eguitea?
- R. Jangoicoari biotza alchacea, faboreac eta graciak escatzea.
- P. Patternostter erraten dugunean noreqñ. minzatzengarà?
- R. Gurè Jangoico Jaunareqñ.
- P. Horaciotañ den andiena ceiñ da?
- R. Patternostter.
- P. Zergatic?
- R. Zergatic erran baizuen Christoc bere ago sanduz apostoluac es-caturic.
- P. Zergatic gueiago?
- R. Zergatic baítara zazpi petizione fundatuac caridade sanduan.
- P. Zeiñ dà lentabikicoa?
- R. Santificabedí zure izena.
- P. Zer escatzen díezu peticio orrettan?
- R. Jangoicoaren izen sandua izan dadiela mundu onettan ezagutua eta alabatua.
- P. Zeiñ da bigarrena?
- R. Bettor guregana zure erreñua.
- P. Zer escatzen díezu peticio orrettan?
- R. Jangoicoac erreina dezala gure arimetan, mundan [sic] graciaz eta bercean gloriaz.
- P. Zein dà irugarrena?
- R. Eguiñ bedi zure borondattea zeruan bezala lurrean ere.
- P. Zer escatzen díezu peticio orrettan?
- R. Jangoicoaren borondatte sandua egun dezagula emen lurrean gaudenac ala nola zeruan Justuac eta bienabenturatuac eguiten duten bezala.
- P. Zeiñ dà laugarrena?
- R. Egun eguzu gurí gueren egunoroco ogua.
- P. Zer escatzen diezu peticio orretan?
- R. Jangoicoac eman diezagula egunean eguneko sustentu corporala eta espirituala eta sacramentuac arimaraco.
- P. Zeiñ dà bortz garrena?
- R. Barca dietzagutu guri gueren zorrac gu zor gaitzteneí barca-tzen tiegun bezala.
- P. Zer escazen diozu peticio orretan?

R. Jangoicoac barca diezagula guri gueren zorrac gu zorgaitutzenei barcatzen tiegun bezala.

P. Zein dà seígarrena?

R. Ezcaitzatzula utzí tentacioan erortzera? [sic].

P. Zer escatzen diotzu [sic] peticio orretan?

R. Jangoicoac ezcaitzala utzi tentatzioan erorcera, ez gueiago consentitzera zergatic Demonioac procuratzen baitu gu becatuan erortzera [sic].

P. Zein dà Zazpigarrena?

R. Baizic libra-gaitzatzu gaizetatic? [sic]

P. Zer escatzen diozu peticio orretan?

R. Jangoicoac libra gaitzala, lenic arimaco, eta guero gorputzeco peligro gaisto gutziatic.

P. Zer erran naidu azqueneco hitz orrec. Amen?

R. Alá hizan dadíela, eta alá guertadadíela.

P. Zein dà lentabikico Mandamentua?

R. Onetsí eta maitacea gurè Jangoicoa bioz guziz gauza gutziac baño gueiago.

P. Norc onetsicen eta maitacen du gurè Jangoicoa?

R. Aren Mandamentu Sanduac guardatzen eta beguiratzen dituenac.

P. Zer dà maitacea gure Jangoicoa berce gauza gutziac baño gueiago?

R. Lenago nai itzatea galdu munduko ondasunac, eta bere bicia ecen ez Jangoicoa grabequi ofenditu.

P. Zerttara gueiago obligacen gaitu mandamtu. Sandu orrec?

R. Adoracera Jangoicoa bera bacarric, arimaco fede bici batequín, eta gorputzeco erreberenciarequin.

P. Norc eguiten du becatu mandamentu onen contrra?

R. Adoratzen dituenac Jangoico falsoac eta hidoloac eta ettan siñesten duenac.

P. Norc gueiago?

R. Siñesten duenac Echizeriettan, sorguinqueriettan, eta bertze gaineraco gauza supersticio-ettan [sic].

P. Zein dà bigarren mandamentua?

R. Juramenturic banoan eguiñ ez dezagula.

P. Norc eguiten du Juramentua banoan?

R. Justiciaric gabe, premiaric gabe, guezurraren gañean Juramentu eguiten duenac.

P. Guezurraren gañean Juramtu. eguiten duenac, zer becatu eguiten dì?

- R. Morttala Jauna.
- P. Dudazco gauza batten gañean Juramttu. eguiten duenac, zer becatu eguiten dù?
- R. Morttala Jauna.
- P. Zergatic?
- R. Zergatic guezurretan atera baitaiteque.
- P. Zer erremedio da bada banoan Juramenturic ez eguiteco?
- R. Acostumbracea, ez edo bai, claroqui erratera Christo guré Jau nac eracusten digun bezala.
- P. Zeiñdà Irugarren Mandamentua?
- R. Yayac, eta Ygandeac ongi guardatzea:
- P. Norc guardatzen ditu Yayac, eta Ygandeac;?
- R. Yayetan eta Ygandettan Meza osua enzuten duenac, premiaric gabe trabajatzen eztenac, eta aiettan obra onetan empleacen denac:
- P. Zeiñdà Laugarren Mandamentua?
- R. Guratsoac, eta Zarragoacoac, ongi onrra, eta errespetadezagula:
- P. Norc onrratzenditu Guratsoac eta Zarragoacoac?
- R. Bere Aita, eta Ama bear orduan socorricen faborecitzen, obedetzicen, eta errespetacen dituenac:
- P. Nor berzeric dà enttenditua guratsoaz landarà?
- R. Andiagocoac adiñean Dignidadean, eta gobernuan.
- P. Nor dirè oriec?
- R. Lenic sacerdotte Jaunac, eta guero Justiciaco Guizonac:
- P. Zeiñdà Bortzgarren Mandamentua?
- R. Nior ill ezdezàgula:
- P. Zer Aguincen digu mandamentu orrec?:
- R. Ez eguitea niori gaitzic, ez obraz, ez, itzez, etta ez deseioz.
- P. Zeindà seigarren mandamentua?
- R. Lujuriazc becaturic eguiñ ezdezagula:
- P. Zer aguincen digu mandamentu onec?
- R. Izan gaitecilla garbiac, eta castoac, gueren itzetan, obrettan, etta pensamentuettan:
- P. Zeinda Zazpigaren Mandamentua?:
- R. Niori deus ebatsi ez Diozogula:
- P. Zer aguincen digu mandamentu onec?:
- R. Ez niori deus ebastea, ez quentzea, edo iduquitzea, asquidela gauza yiquibat, andiaren ebasteco intencioarequin artzen badu becatu morttal eguiteco.
- P. Zeiñdà zorcigarren mandamentua?

R. Niori falsotestimonioric alcha, edo gora ezdiozogula etta guezu rric erran ezdezagula.

P. Zer aguincen digu mandamentu onec?

R. Ez eguitea lagun progimoaren contra Juicio gaistoric, ez erratea, etta ez adicea aren faltac:

P. Zer debecacen dirè bederecigarren etta, amargarren mandamentuan?

R. Seigarrenean, etta Zazpigarrenean debecatzen diren itzac:

P. Zembat ettara encerratzen dirè oriec?

R. Biettara.

P. Zeindirè?

R. Lentabiczicoa Onetsi etta maitadezagula gure Jangoicoa bioz gutziz, gauza gutziac baño gueiago: Bigarrena gueren lagun proximoac, gueren buruac bezala Jangoicoagatic:

P. Zer dirè Sacramentuac?

R. Dire señale Extteriore bazuec Jessu Christo gure Jaunac para tuac equen medioz, emateco guri beregracia, etta birtuteac:

P. Zer da gracia?

R. Da izatte divinobatt zeñen medioz eguiten baicara Jangoicoaren hume etta Zeruco, Heredero:

P. Zer birtute ematten dutte Sacramentuac graciarequin battean?

R. Principalqui iru virtute Theologalac etta Divinoac.

P. Zeiñ dirè?

R. Fedea, Esperanza etta caridadea.

P. Zerdà fedea?:

R. Icusingabe siñestatzea Zergatic Jangoicoac errebelatu baitu.

P. Zerdà Esperanza?:

R. Esperacea Zeruco gloria eder urà, Jangoicoaren graciarequin, etta emengo obra onac direla mediantte.

P. Zerda Caridadea?

R. Maittatzea gure Jangoicoa biotz gutzitic gauza gutzien gañean, etta gueren lagun proximoac gueren buruac bezala Jangoicoagatic:

P. Zerttaco dà Battaioa?

R. Becattu orijinala equentzeco, edo berce edoceñ, aurquitzendena Bataiatzen denaren baitan:

P. Zerda became originala?

R. Dabecattu batt cenarequin sorcen bai cara Heredaturic, gure lenttabiczico Gurasoen Adan eta Eba ganic:

P. Becatu ori, berez mortala, edo beniala dà?

R. Morttala Jauna:

- P. Becattu orrequin iltzen denà narat [sic] Juaindà?:
 R. Limbora Jauna:
 P. Zer pena, edo trabajua izanen du han?:
 R. Jangoicoaren aurpeguia eciñ icusia:
 P. Zertaco dà confirmacioa?
 R. Confirmatzeco, eta aseguratzeco Bautismo sanduan errecivitu
 guenuen fedea:
 P. Zerttaco dà Confesioa?:
 R. Battaiatu ez gueroztic egun ditugun becatu gutziac barcatzeco:
 P. Zer becatu dirè oriec?:
 R. Morttalac, baitta ere benialac:
 P. Zerdà becatu morttala?
 R. Da erratea, edo eguittea, pensatzea, edo deseatzea, gauza grabe
 batt, Jangoicoaren Legue sanduaren contrra, galtzen dugularic aren gracia:
 P. Zerdà becatu beniala?
 R. Da erratea edo eguitea, pensatzea, edo deseatzea gauza lebe bat
 Jangoicoaren legue Sanduaren contra galtzen eztugularic aren gracia bai-
 cic aren caridadearen ferborea:
 P. Zerttaco dà Comunionea?
 R. Dignoqui errecibitzen dugularic Jessu Christoren Gorputz pre-
 ciosa, izan dadien gure arimettan manttenimentu Espirituala, eta au-
 menta dezan gracia:
 P. Zerttaco da Oliadura?
 R. Irugauzetako:
 P. Zeiñ dirè?
 R. Lentabiczica becatu mancha arrestoen equenceco; bigarrena ari-
 mari indarra emateco Demonioaren tentacioen contrra: Irugarrena Corp-
 tzari, osasuna ematetako, eta conbeni bazaio arimari:
 P. Zerttaco dà Ordena?
 R. Ordenatzeko, eta, consagratzeko, elizako ministro dignoak Ze-
 ñec baitire sacerdotteac Epistolaz, eta Ebangelioz ordenatuak:
 P. Zertaco dà matrimonio Sandua?
 R. Ezcontzeco, eta ezconduei gratzia emateko biciditecin elcarren
 artean baquean, eta unione onean, eta izatten bautte humeric, azteco
 Ceruraco Jangoicoaren beldurtasunarequin:

BECCATTU CAPITALAC

Becattu Capittalac dirè zazpi: Lentabiczica Soberbia: — Bigarrena
 Embidia: Irugarrena Gula: — Laugarrena Ira: Bortzgarrena Abaricia:
 Seigarrena Lujuria: eta Zazpigarrena Pereza:

CONTRARIOAC

Zazpi vicio orien contra badire Zazpi virtute: Soberbiaren contra humildadea; embidiaren contra caridadea; Gularen contra Templanza; Iraren contra paciencia; abariciaren contra liberalidadea; Lujuriaren contra castidadea eta perezaren contra Diligencia:

- P. Zembat dirè Arimaren Pottenciac?
- R. Iru Jauna.
- P. Zeiñ dirè?
- R. Memoria, Entendimentua, eta Borondatea:
- P. Zerttaco emancigun Jangoicoac Memoria?
- R. Arttaz oroizeco, eta arc eguiten tigun beneficioz eta faborez:
- P. Zerttaco emancigun Enttendimenttua?
- R. Ezagutzeco, eta aren baitan pensatzeco:
- R. Zerttaco emancigun Borondattea?
- R. Maitatzeco gure Jangoicoa bioz gucitic gauza gutziac baño gueia-go, eta gueren lagun proximoac gueren buruac bezala Jangoicoa gatic:
- P. Zembatt dirè Birtute cardinalac?
- R. Lau Jauna:
- P. Zeiñ dirè?
- R. Prudencia, Justicia, Forttaleza eta Templanza.
- P. Zembatt dire Sentido Corporalac?
- R. Bortz Jauna:
- P. Zeiñ dirè?
- R. Lenttabicicoa beguiz icusttea: Bigarrena bearriez aditzea; Iru-garrena Sudurrez usmatzea; Laugarrena Agoz gustatzea; eta Bortzgarrena esquz uquitzea:
- P. Zembatt Jangoico dirè?
- R. Batt Jauna:
- P. Zembat Persona?
- R. Irù Jauna?
- P. Zeiñ dirè:
- R. Aita eta Semea, eta Espiritu Santua [sic].
- P. Iru persona oriettaric zeiñ eguintzen Guizon?
- R. Semea Jauna:
- P. Non?
- R. Maria Santissimaren Enttraña garbiettan.
- P. Noren obraz eta birtutez?
- R. Espiritu Sanduain obraz, eta virtutez.
- R. Nola izanducen obra ura?

R. Espiritu santuac artuzuela Maria Santissimaren entraña garbietatik, odol, porcionebat, odol artaz formatuzuela gorputz bat; ezdeus ettaric, criatu Zuela Arima batt: Arima, eta gorputza elcarreQuiñ uniturican, Trintateco bigarren Personac artu Zuela guizontasuna beregana; eta len Jangoico Zena, guelditu zela Jangoico eta guitzon eguiñic:

- P. Zerda Aldareco Sacramentu Santua?
- R. Hostia consagratura:
- P. Zer dago Hostian?
- R. Sacerdotte Jaunac itz consagratuac erran baño len ogui piscabat: Sacerdotte Jaunac itz consagratuac erran ez gueroz, Jessu christoren Gorputz preciosa: odola, Arima eta Dibinidadea:

 - P. Zergatic dago han odola?
 - R. Zergatic Gorputz bicia eciñ baitagoque odol biciric gabe:
 - P. Zergatic dago Arima?
 - R. Zergatic gorputz bicia, odol biciarequiñ eciñ baitagoque Arimetic gabe:

 - P. Zergatic dago Dibinidadea?
 - R. Zergatic trintateco bigarren Personac Artu baizuen gure naturaleza beregana, berriz beñere ez uzteco.

 - P. Zerdago Calizan?
 - R. Sacerdotte Jaunac itz consagratuac erran baño len Ardo porcionebat, ur tanta batequin: Sacerdotte Jaunac itz consagratuac erran ez gueroz, Jessu Christoren odol preciosa: Gorputza, Arima, eta Dibinidadea.

 - P. Zergatic dago han Gorputza?
 - R. Zergatic odol bicia ecin baitagoque Gorputz biciric gabe:
 - P. Zergatic dago Arima?
 - R. Zergatic odol bicia Gorputz biciarequin ecin baitagoque arimetic gabe:

 - P. Zergatic dago Dibinidadea?
 - R. Zergatic trintateco bigarren Personac artu baizuen guré naturaleza beregana, berríz beñere, ez uzteco.

 - P. Confesio onbat eguiteco Zembat diligencia beardire eguiñ?
 - R. Bortz Jauna.
 - P. Zeiñ dire?
 - R. Lentabicicoa bere concientzia ongi Examinatzea: Bigarrena Doloera formatzea: Irugarrena propositu firme bat artzea: Laugarrena itzez confesio ombat eguitea: eta Bortzgarrena, confesore Jaunac ematen dion Penitencia cumplitza:

 - P. Confesoreac ematen Duen penitencia; noiz cumplitu bearda?

R. Dembora señalatzen badio, Dembora señalatuaren barrenean, edo bercenaz len baño len.

P. Zerda conciencia Examinatzea?

R. Bere becatuac memoriara ecartzea.

P. Conciencia Examinatzeko zer paraje elegitu bearda?

R. Lecu erretiratu bat Jauna.

P. Zer dembora bearda conciencia Examinatzeko?

R. Ezta dembora señalaturic, nola duen premia, edo necesida-dea? [sic].

P. Conciencia nondic Examinatu bearda?

R. Jangoicoaren Leguezco Mandamentu Sanduetaic; Elizaco bortz-etaic: obra misericordiazcoetaic; eta bacochac bere esttadu, eta obli-gacio ettaric:

P. Zerdà Dolorea?

R. Da bioceco damu eta urriquimendu andibat, gure Jangoicoa ofendituaz:

P. Zembat aldetara dà?

R. Biettara Jauna:

P. Zeiñ dirè?

R. Atricioa eta contricioa:

P. Zerda Contricioa?

R. Dà bioceco damu edo urriquimendu andibat gure Jangoicoa ofen-dituaz; Zergatic den guciz ona; propositu firmebatequin èz berriz beca-turic eguiteco, eta confesoreac ematten duen penitencia cumplizeco:

P. Zerdà Attricioa?

R. Da biozeco damu edo urriquimendu andibat gure Jangoicoa ofendituaz, zergatic nere becatuac direla medio galdu baitut Jangoicoaren gracia, eta meretzi bai tut infernua; propositu firmebatequin & c.º:

P. Dolore oriettan den oberena Zeindà?

R. Contricioa Jauna:

P. Zergatic?

R. Zergatic controcioac bere birtutez barcatzen baititu becatuac bañon Atricioac ez, non ezten confesio ombatequin.

P. Zerdà propositua?

R. Dà arce [sic] determinacio firmebat ez berriz becaturic egui-teco: especialqui morttalic:

P. Confesoreari, bere becatuac nola errambear zaizquierdo?

R. Ciertoac, cierto bezala Dudosoa dudoso bezala ez berratu, eta ez gutitu gabe:

P. Ongui comulgatzeko batec zembat disposizione beartu?

- R. Bida Jauna
 R. Zeiñ dirè?
 R. Bat Arimaren partecoa, eta bertzea gorputzaren partecoa.
 P. Zeiñda Arimaren partecoa?
 R. Estadu graciazcoa Jauna:
 P. Zeiñda gorputzaren partecoa?
 R. Gau erditic goiti, yan, eta edan gabe, baru sollic Jesuchristoren errecibitzera yuarea.
 P. Jessuchristo gure Jauna errecibitzeracoan zer horacione eguin bearda?
 R. Jauna ni eznaiz Digno, orren divina Magestadearen errecivitze-
 co; bañon ala ere erran bedi orren itz sandua eta hizanenda nere arima,
 Sendatua eta salbatua:
 P. Norda Aita?
 R. Da Trintateco lentabicico persona Divinoa zeñec ingendratu bai-
 tzuen, seme bacarbat, igual exsencian, distintoa solo personan:
 P. Norda Semea?
 R. Da Trintateco bigarren persona Divinoa engendratua Aita Eter-
 noarenganic.
 P. Norda Espiritu Santua?
 R. Da Trintateco Irugarren persona Divinoa, Zeñec proceditzen bai-
 tu Aitaren ganic, eta Semearenganic.
 P. Eguizu fedezco Actoa?
 R. Jauna nic siñestendut Aitaren, eta Semearen, eta espíritu San-
 duaren baitan; iru persona Distintoac eta Jangoico bat bacarra; Alaber
 nic siñestendut orren Magestadeac Elizama santarí, errebelatu cition mís-
 terio gutziellan; ortan bitzi naiz, eta ortan ilnaidut:
 P. Eguizu Esperanzazco Actoa?
 R. Jauna nic esperatzen dut Zeruco gloria eder ura Jangoicoaren
 graciarequin, eta emengo obra onac direla mediante:
 P. Eguizu caridatzeko Actoa?
 R. Jauna nic maitatzen zaitut bioz gucitic berce gauza gutziac baño
 gueiago; eta gueren lagun proximoac, gueren buruac bezala Jangoi-
 coagatic:
 P. Christoren baitan zembar naturaleza dire?
 R. Bida Jauna:
 P. Zeiñ dirè?
 R. Divinoa eta Humanoa:
 P. Cembar enttendimentu?

- R. Bida Jauna:
 P. Zeifí dirè?
 R. Divinoa, etta humanoa:
 P. Zembat Borondatte?
 R. Bida Jauna:
 P. Ceifí dirè?
 R. Divinoa etta humanoa:
 P. Jangoicoaren baitan Zembat naturaleza dirè?
 R. Bat Jauna:
 P. Zeindà?
 R. Divinoa Jauna.
 P. Zembat Enttendimentu?
 R. Bat Jauna:
 P. Zeindà?
 R. Divinoa Jauna:
 P. Zembat Borondatte?
 R. Bat Jauna:
 P. Zeifidà?
 R. Divinoa [sic].
 P. Zergatic eztu Jangoicoac Persona Humanoric?
 R. Zergatic Persona Divinoa baita incompatiblea persona Huma-noarequin.
 P. Non dago gure Jangoicoa?
 R. Lecu etta gautza gutzietan particularqui Zeruan etta Aldareco Sacramentu Sanduan:
 P. Non dago Christo?
 R. Jangoicotasunean non ere nai, particularqui Zeruan etta Aldareco Sacramentu Sanduan; guizontasunean solo zerua...
 [Aquí se interrumpe y termina el manuscrito por estar rota la hoja última.]

Por la copia y Noticia: A. IRIGARAY.